

HERNANI2021

IBILBIDEAREN ERDIA EGINDA, AURRERA BEGIRATZEKO GARAIA DA

UDAL ALDIZKARIA · REVISTA MUNICIPAL
UZTAILA · JULIO

Gudarien plaza 1. 20120 Hernani
Tel. 943 337 000
www.hernani.eus





2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetatik bi urte igarodira eta balantzea egiteko garaia da. Orain arte egin ditugun ekimen eta eskuhartze aipagarrienak eta hemendik aurrerako asmoen zertzelada batzuk emango dizkizuegu hurrengo orrialdeetan.

Duela bi urte, Gobernua osatu genuenean, herriaren alde gure onena emateko konpromisoa hartu genuen. Orduz geroztik, gure jardunak bi zutabe izan ditu: batetik, hauteskundeetara aurkeztu genuen herri programa, eta, bestetik, herri eragileekin eta mugimenduekin hartutako konpromisoak. Osagai horiekin mamitu genuen gure **Gobernu Programa (2019-2023)** eta hori izan da gure iparorratza.

Hala ere, oraindik lehen urtea bete gabe geneukanean, ezustean etorri zitzaigun **COVID-19a**. Eta, pandemiarekin batera, espero ez genuen egoera zail bat kudeatu behar izan dugu. Inon ez aurreikusitako beharrak etengabe azaldu zaizkigu eta lehentasunak horren arabera egokitu behar izan ditugu egunez egun.

Lur labainkorretan aritu bagara ere, Gobernu programan jasotako ekintza batzuk burutzeko aukera izan dugu. Beste batzuk, zoritxarrez, atzeratu behar izan ditugu.

Nolanahi ere, tokian tokiko natura, ondarea, pertsonak, negozioak eta mugimenduak zaintzea izan da beti gure lehentasuna. Horrekin batera, herriaren kultura, jatorri edota ideologia aniztasuna eta herritar eskubideen parekidetasuna bermatzea izan dira gure egunerokoa gidatu duten irizpideak.

Beste bi urte dauzkagu aurretik eta hartutako konpromisoak betetzen saiatuko gara, egoera berezi honek uzten digun neurrian.

Han transcurrido dos años desde el 26 de mayo de 2019 y es hora de hacer balance. En estas páginas os damos cuenta de algunas iniciativas realizadas hasta la fecha y también adelantamos algunos planes futuros.

Después de recibir el apoyo mayoritario de la ciudadanía aquel 26 de mayo, dos pilares han sostenido nuestra acción de gobierno desde entonces: por un lado, el programa con el que nos presentamos a las elecciones y, por otro, los compromisos adquiridos con los movimientos y agentes locales. Con estos criterios elaboramos nuestro **Programa de Gobierno (2019-2023)** y esa ha sido nuestra brújula.

Sin embargo, cuando aún no habíamos cumplido el primer año, nos sorprendió la **COVID-19**. Debido a la pandemia, hemos tenido que lidiar con imprevistos y adaptar nuestras prioridades día a día.

A pesar de movernos en terreno pantanoso, hemos conseguido cumplir con algunos compromisos del programa de Gobierno. Otros, por desgracia, han sido pospuestos.

En cualquier caso, nuestra prioridad siempre ha sido cuidar de nuestro entorno, el patrimonio, las personas, los negocios y los movimientos locales. Además, garantizar la diversidad cultural, de origen e ideológica, y la paridad de derechos de toda la ciudadanía.

En estos dos años que nos quedan de legislatura intentaremos cumplir, en la medida en que la situación nos lo permita, los compromisos adquiridos con todos y todas vosotras.

XABIER LERTXUNDI ASTEASUINZARRA
Alkatea

ORAIN ARTE EGINDAKOARI BEGIRADA

1

ESKUBIDEEN PAREKIDETASUNAREN ARLOAN aurrerapauso handiak eman ditugu.

Kulturarteko Plaza Feministaren ametsa errealitate bihurtu da. Emakumearen edota LGTBI kolektiboen ikusgarritasuna areagotzeko ekimen garrantzitsuak ere egin ditugu, beti ere mugimenduekin elkarlanean.

De la mano de los movimientos sociales, hemos conseguido avanzar en la paridad de derechos, aumentar la visibilidad de las mujeres y del colectivo LGTBI.



2

PERTSONEN ONGIZATEA

bermatzeko lanean ere emaitza interesgarriak ditugu. Zaintza kooperatiba bat eratzen lagundu dugu, zaintza lanez arduratzen diren emakumeen lan-baldintzak duintzeko xedez. Tratu Onak sustatu ditugu herrian eta ikastetxeetan, osasun aktiboen mapeoa egiten ari gara, herritarrekin eta herriko beste eragileekin batera, gure herria osasuntsuagoa egiteko asmoz. Kultura eta sorkuntza sustatzen jarraitzen dugu, herriko sortzaileei haien proiektuak garatzen ahalbidetzen. Kultura arloan munduan erreferentea den Chillida-Lekurekin harremanak eta elkarlana finkatu ditugu.

Entre las acciones realizadas para mejorar el bienestar de las personas destacamos la creación de una cooperativa de cuidados, la elaboración del mapa de activos de salud, los programas para fomentar los buenos tratos en los centros educativos. En el ámbito cultural, el impulso a la creación artística y la colaboración con los agentes culturales del municipio, como Chillida-Leku.



3

ARLO PUBLIKOA ETA FISKALITATEA.

COVID-19aren eraginez, aurrez aurreko harrerak etenaldi bat izan zuen arren, tramite telematikoak indartzeko ahalegina egin dugu eta, egoerak baimendu digun neurrian, HHZren ordutegia eta zerbitzuen eskaintza zabaltzeko apustua egin dugu. Kulturako ikuskizunen sarrerak interneten erosteko aukera ere eskuragarri jarri dugu. Fiskalitateari dagokionez, pandemiaren krisialdiaren ondorioz, asko sufritu duten sektoreentzat -merkataritza eta ostalaritza- hobariak onartu ditugu zenbait udal zergetan eta tasetan (hondakinak, terrazak, ur eta saneamendu tasetan...).

A pesar de que la pandemia ha obstaculizado la atención presencial, hemos reforzado el servicio de atención a la ciudadanía (más personal, ampliación de horarios...), y se ha impulsado la oferta de trámites telemáticos. Para ayudar a colectivos, como el comercio y la hostelería, muy perjudicados por la pandemia, se han aprobado bonificaciones en tasas e impuestos municipales.

Egin zure tramiteak etxetik!
#HernaniTelematikoki

- » Ordainagiriak
- » Erregistroak: altak, kontsultak...
- » Errolda: ziurtagiria, datuak, historia,...
- » Tasak eta zergak
- » Isunak
- » Dokumentuak egiaztatu eta kontsultatu

Erabili gure zerbitzu telematikoak

Hernaniko Udala

4

HERRIAREN GARAPENA SUSTATZEKO

hamaika ekintza eta programa egin ditugu bi urteotan.

4.1.

TOKIKO EKONOMIARI DAGOKIONEZ,

ekintzaitetasuna eta kooperatiben sorrera sustatzea izan da lehenetsua (Iturola co-working espazioa, Koop Fabrika programa), eta industriaren alorrean, Galarretako garapenaren aldeko apustuari eutsi diogu. Merkataritza eta ostalaritza arloei laguntzea izan da lehenetsuezkoa pandemia garai honetan eta horretan ekimen ugari egin ditugu: formakuntza, Hernaniko Plaza erakusleihu digitala, banaketa zerbitzua, bertako kontsumoa sustatzeko kanpainak (erosketa bonuak, erruleta, #izan aktibista...)

Impulsar la economía local ha sido otro de los ejes del gobierno: se ha fortalecido el espacio de co-working Iturola, los programas de formación en emprendizaje, el desarrollo del parque tecnológico de Galarreta, ayudas al comercio, hostelería y productores/as locales, campañas para promocionar el consumo local.



4.2.

Jasangarritasuna izan da zenbait proiekturen ardatza eta helburua, hala nola, energia aurrezteko argiztapenaren berritzea eta eraikin publikoen isolamendua hobetzeko interbentzioak (Biterin, udaletxean...), baita sentsibilizazioa eta formakuntza landu da ikastetxeetan (Euronet 50/50). Hondakinen alorrean, gaikako bilketa hobetzeko ekintzak, kanpainak (Zero Zabor hozkailua, industria poligonoen bilketa hobetzeko hezitzaile baten kontratazioa, "Hondakinek batu, ez errefusatu" sentsibilizazio kanpaina....).

Acciones de ahorro energético para mejorar la sostenibilidad: renovación de alumbrado público, aislamiento de edificios municipales, sensibilización en centros educativos. Mejora continua en la gestión de residuos: campaña de sensibilización, contratación de una educadora para ayudar a las empresas ubicadas en los polígonos industriales a mejorar la clasificación de sus residuos, nevera Residuo Cero...




4.3.

IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA HOBETZEKO INTERBENTZIOAK.

Portu-Elizatzxo auzoetan mugikortasuna hobetzeko eta oinezkoei lehenetasuna emateko eskuhartzeak egiteko planaren beste fase bat egin da, haur parkeak txukundu eta berritu ditugu, Karabelgo aisialdi gunea amaitu da, atletismo pista berritu da, arriskutsua zen Osinagako landabidea konpondu da...

Mejor movilidad y accesibilidad: intervenciones en Portu y Elizatzxo (preferencia peatonal), renovación de parques infantiles, renovación de la pista de atletismo, nueva zona de esparcimiento en Karabel, eliminación de zona peligrosa en Osinaga.



4.4.

TURISMO JASANGARRIA.

Urumea aisialdi-gunearen erabilera neurtzeko plana abian dago, sagardogileekin batera landutako bisita interpretatuak...

Acciones por un modelo de turismo sostenible, como visitas guiadas en sidrerías y puesta en marcha del plan para optimizar el uso de la cuenca del Urumea como espacio de ocio.



**BISITA GIDATUAK
ETA SAGARDO-DASTATZEA 10c**

Sagardotegi bakoitzean esperientzia desberdina, sagardo-dastatzea eta pintxoak barne.

MARTXOAK 13 eta 27
"Magariñak eta gurte sagardotegi Urumea ibaian zehar"
altzueta

**MARTXOAK 20
APRILAK 17**
"Dare sagaria arantzuz, gurte sagardotegiaren izena arabi dugu"
IPARRAGARRI

**MARTXOAK 21
APRILAK 4**
"Sagariak eta arantzak ber egiten diren zelaiak"
Zelaia

MARTXOAK 14 eta 28
"Urumea emari otzu izene sagardotegi eta ibaiaren arteko harremanak"
Sagardotegi

ORDUTEGIA:
10:30-11:30

PLAZA MUGATUAK
Urumea ibaiaren ertzean, Sagardotegiaren ondoan.
Bilbo, Euzko Leizorgeria, Sagardotegiaren ondoan.

Segurtasun neurri guztiak errespetatuz.
Maskara berantzean / Tarteak teki-ak.

AURRETIKO ERRESERBA
hernani.eus
edo Turismo Informazio Bulegoan

Heranako ibaiak

ETORKIZUNEAN, ZER?

Las líneas de actuación en los próximos dos años serán mejorar la movilidad y el desarrollo sostenible, apoyar la economía local y mejorar la socialización de las personas mayores.

Un renovado servicio de autobús urbano, un nuevo desvío en la Florida para aligerar el tráfico del centro urbano, un nuevo paso peatonal entre Karabel y Portu, completar y llevar hasta Martindegi el bidegorri que viene de Karabel, más programas para incentivar el consumo en los comercios locales, una comunidad energética para fomentar un modelo de consumo sostenible y ayudar a que desaparezca la pobreza energética son algunos de los proyectos destacables que el ayuntamiento tiene entre manos.

ZAINITZA

Adinekoen akonpainamendu zerbitzua: adineko pertsonen bakardadeari aurre egiteko sozializazioa sustatzeko programak.



MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

sustatzeko neurriak

- Bertako kontsumoa sustatzeko kanpainak egiten jarraituko ditu Udalak Berriak elkartarekin elkarlanean.
- Guztion programa: ekintzaileek haien negozioak abiatzeko hutsik dauden lokalak aktibatzeko egitasmoa da. Lokalen jabeen eta negozioa ireki nahi duten ekintzaileen arteko zubilana egiteaz gain, dirulaguntzak ere bideratuko ditugu lokalen zabaltzea sustatzeko.
- EKHI moneta lokala: hernaniarrok gastatzen dugun diruaren zati bat bertako ekonomia sustatzeko helburua du EKHI ordaintzeko sistemak. Proba pilotua prestatzen ari da Udala merkatariekin eta zenbait herritarrekin elkarlanean.



ekhilur

Erosi, saldu, kooperatu

MUGIKORTASUNA

- Portu eta Karabelen arteko oinezko lotura egiteko proiektua lantzen ari gara. Renfe eraikitzen ari den tren geltoki berriaren ondorioz, bi auzoak lotzen zituen bidea itxita dago. Eskuarteak daukagun proiektuari esker, ordea, oinezko bide hori berreskuratu eta hobetuko dugu.
- Florida auzoan urbanizazio berri bat planifikatzen ari da Foru Aldundia. Horrek Zinkoeneara doan kale horietako trafikoa areagotuko du. Herri barruko trafiko hori saihesteko AP-15erako irteera bat lantzen ari da Udala. Horrek autobiarako irteera erraztuko die Floridako auzokideei, baita Etxeberri, Antziola, Iturmendi eta Sagastialdeko auzokideei ere.
- Ibaiondo-Martindegi bidegorria: egun Karabeletik Ibaiondo poligonora Urumeako ertzetik doan bidegorri bat dago. Horren jarraipena egingo da -Martindegiraino- eta, horrela, Astigarragako bidegorriarekin lotuko da.
- Hiribus zerbitzu berritua: herriko auzoak erdigunearekin lotzen duen garraio publikoa hobetzen ari gara. 2022an, autobus berria izango du herriak -erabat irisgarria- eta herritarrekin elkarlanean egokitutako ordutegiarekin.



INGURUMENA zaindu eta garapen eredu jasangarriaren aldeko neurriak

- Pobrezia energetikoaren kontra eta energiaren gaineko kontrola berreskuratzeko helburuz: komunitate energetiko bat sortzeko urratsak egiten ari gara Udala, Goiener kooperatiba eta zenbait herritar elkarlanean. Hori eratzten denean, Udalak plaka fotovoltaikoak erosiko ditu, eraikin publiko batean jarri eta komunitateko bazkideek energia hori baliatu ahalko dute haien etxebizitzetan.
- Mendilurrak eskuratzen ari da Udala bertan espezie autoktonoen landaketa sustatzeko eta lurzorua agortzen duten espezieen landaketa -eukaliptoa eta pinudia- gelditzeko. Datozen bi urteotan 90 hektarea erostea aurreikusten da.
- Biteri kultur etxeko ipar blokea energetikoki eraginkorra izateko eskuhartzea: fatxadaren eta hormen isolamendua, leihoen aldaketa, argiztapena...

